



EGKatalogoa

Gazte elkarteei zuzendutako baliabide gida



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

AURKIBIDEA

NOR GARA

5

FORMAKUNTZA PLANA

6

Formakuntza programa

7

Ahalbidetuz programa

8

Gazte formatzaileen poltsa

10

AHOLKULARITZAK

11

GELEN ETA MATERIALEN MAILEGUA

13

Gelen lagapena

14

Materialen mailegua

15

PIZTU! BOLETIN DIGITALA ETA BESTE KOMUNIKAZIO BIDE BATZUK

17

GUNE ANITZA

18

LANTALDEAK

20

GAZTE BOLUNTARIOAK

21

EMANTZIPA... ZER?


22

GAUR8

23

ASTIALDI FOROAK

24





NOR GARA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan (EGK) 60 gazte elkarte inguru biltzen gara: ikasle-elkarteak, astialdiko federazioak, alderdi politikoetako gazteak, sindikatuetao gazte-sailak, talde kulturalak... Gazte-erakunde gisa, Euskadiko gazteen parte-hartzea bultzatzen dugu, gazteen, gazte-elkarteen eta administrazioaren arteko zubi lana eginez.

Horretarako, EGKren jardunean elkarreei eman diezaiekegun laguntza oinarritzkoa da. Formakuntza Plana martxan jarri, zuen jarduerak zabaltzen lagundu, gazte-mugimenduen deialdien berri eman, parte-hartzeari eta gazteei buruzko aholkularitza eskaini eta gelak zein materialak maileguan uzten dizkizuegu. Katalogo honetan azaltzen dizuegu nola:

FORMAKUNTZA PLANA

Formakuntza Plana gazteen elkartegintza indartzeko helburua duen ekimena da, eta prestakuntzaren bidez, laguntza teknikoa eskaintzeko prozesuak bultzatzen ditu.

EGKn ulertzen dugu gazte-elkarteak eta gazteen parte-hartzea indartzeko bideetako bat formakuntza dela, hezkuntza-sistemaren gabezia nagusietako bat partaidetzarako hezkuntza baita. Hezkuntza-sisteman ez denez lantzen, elkarteei egokitutako lana da hau, eta horregatik zuen lana aurrera eramaten jarraitu ahal izateko, bidelaguntza prozesuak indartu behar ditugu.

Testuinguru horretan, EGKrentzat ezinbestekoa da Formakuntza Plan hau bultzatzea, partaidetzarekin eta gazte-elkarteekin lotutako gaietan. Plan honen helburua elkarteen formakuntza-beharrei erantzutea da, eta horretarako bi programa hauen bidez egiten dugu: Formakuntza Programa eta Ahalbidetuz.

FORMAKUNTZA
PLANA

AHALBIDETUZ

GAZTE
FORMATZAILEEN
POLTSA

Programa de formación

Zer da Formakuntza Programa?

EGKren formakuntza programa EGK-k antolatzen dituen formakuntza saioen multzoa da. Lehentasunez, EGK osatzen duten elkarteei zuzenduta daude, eta gutxi gorabehera hilean behin eskaintzen dira, doan.

Formakuntzak aurrez aurrekoak dira; saio laburrak eta metodologia dinamiko eta parte-hartzaileak lehenesten dira.

Nork har dezake parte?

Formakuntzaren hartzaileak gazteak zarete, gazte-elkarteetako kideak, bereziki EGK-ko kide diren elkarteetakoak. Hala ere, plaza guztiak betetzen ez badira, EGKtik kanpoko gazteek ere parte hartu ahal izango dute.



Ahalbidetuz

Zer da Ahalbidetuz Programa?

Ahalbidetuz programa formakuntza eskaintzean datza, elkarre batek hala eskatzen duenean. Beraz, elkarrearen errealitate zehatzera egokitutako formakuntza indibidualizatua da. Programa hau EGK-ko kide diren elkarreentzat soilik ematen da.

Gazte elkarreek formakuntzak eskatu ditzakezue Formakuntza Programan aukeratutako gaien arabera. Hala ere, bestelako formakuntza beharrak izanez gero, gurekin jar zaitezke harremanetan eta egon daitezkeen aukerak aztertuko ditugu.



Nola funtzionatzen du?

EGK-ko kide zareten elkarteek formakuntza jaso nahi baduzue, honako helbide elektronikora idatzi behar duzue: partehartze@egk.eus.

EGKn harremanetan jarriko ditugu formakuntza emango duen pertsona eta formakuntza eskatzen duen elkartea.

Baina horretaz gain... EGK-k formakuntzen finantzaketa erraztuko du ekonomikoki. Hau da, formakuntzaren zati bat ordaintzeko diru-partida bat izango dugu, diru hori agortu arte. Behin kreditu-muga horretara iritsita, EGK-k formakuntza erraztuko du, baina ez du finantzatuko.

Urtero elkarte bakoitzak formakuntza bat eska dezake EGK-k kofinantzatzeko. Beste bat eskatuz gero, EGK-k formakuntza erraztuko du, baina finantzaketarik gabe.



Gazte formatzaileen poltsa

Zer da?

Formakuntza Programa eta Ahalbidetuz Programa Gazte Formatzaileen Poltsari esker gauzatzen dira.

Gazte formatzaileek formakuntzak emango dituzte. Hau da, saioak gazteek dinamizatuko dituzte osorik, edukia eta metodologia EGKrekin adostuta.

Nola funtzionatzen du?

Urte hasieran deialdi bat egiten da, zerrenda osatzeko gazte formatzaileak bilatzeko. Deialdia EGKren ohiko komunikazio bideen bitartez zabalduko da.

Profilak urtero aukeratutako gaien arabera izango dira, baina deialdian zehaztuko diren betebeharrak komunak eta derrigorrezkoak egongo dira.



AHOLKULARITZAK

EGKn gazteei tresnak eskaintzeko modurik baliagarriena informazioaren sarbidea erraztea dela uste dugu, modu errazean, hurbilean eta egungo beharretara egokituta.

Baliabide hau gazteei laguntza emateko eta kezkak argitzeko sortu da. Gazteek gazteentzat kudeatutako ekimen hau konfiantzazko espazio bat izateko diseinatu da, hurbiltasuna eta ulermena oinarri hartuta.

Aholkularitza aukera honek gai ugari jorratzen ditu:




**FORMAKUNTZA
ETA HEZKUNTZA**



BERDINTASUNA



EMANTZIPAZIOA



**GAZTERIA
PROGRAMAK**



**BOLUNTARIOTZA
AUKERAK**



ASTIALDIA

Gazteengan eragina izan dezakeen edozein gai.

Espazio hau berezia da, galderak erantzuten ditugunok ere gazteak garelako. Honek enpatia eta epaiketarik gabeko tratua segurua bermatzen du.

Halaber, eskuragarri dago sare sozialen, telefonoaren, posta elektronikoaren eta aurrez aurreko arreta bidez gure bulegoetan.

2025etik aurrera, aholkularitza zerbitzu digitala martxan jarri dugu, galderei modu anonimoan erantzuteko:

[EGIN KLIK HEMEN](#)



Idatz iezaguzu eta zure zalantzak argitzeko lan egingo dugu!



GELEN ETA MATERIALEN MAILEGUA

Ez ditugu gauza askorik, baina ditugunak partekatzen ditugu!


Baliabide honen bidez, gazte-elkarteei eta gizarte-mugimenduei gelak eta materialak maileguan uzten dizkiegu. Zerbait behar baduzue zuen jardueretarako, hemen duzue maileguan eman dezakegunaren zerrenda eta eskaera egiteko jarraibideak:

Gelen lagapena

BILBO (Autonomia kalea, 44, behean)


Erabilera anitzeko gela. 30 pertsonentzako espazioa. Wifi konexioa. Mugikortasun urriko pertsonentzat irisgarria.

Bileretarako gela. 10 pertsonentzako edukiera. Wifi konexioa eta arbela.




DONOSTIA (Andia kalea, 11, lehen solairua)

Bileretarako gela, 15 pertsonentzako edukierarekin. Wifi konexioa.



GASTEIZ (Ramiro de Maeztu kalea, 15)

Bileretarako gela, 15 pertsonentzako edukierarekin. Wifi konexioa.



Materialen mailegua

Zuen eskura ditugu hainbat material:

ARGAZKI-KAMERA



Argazki-kamera behar baduzue, erabili dezakezue reflex kamera digital hau: Canon EOS 1100, 18-55mm objektiboarekin.

BIDEO-KAMERA



Zuen ekintzak grabatzeko, erabilgarri duzue bideo-kamera erraz hau: Panasonic HDC-SD90 eredua.

PROIEKTOREAK ETA PANTAILA



Bideoak, aurkezpenak edo behar duzuen proiektatzeko, hiru proiektagailu ditugu. Proiektzio-pantaila ere eska dezakezue.

SOINU- EKIPOA



Bozgorailu hauek erabil ditzakezue zuen ahotsa indartzeko, musika jartzeko...

Ezaugarriak: 230V, 50HZ, 140Watts.
Maileguarekin kable bidezko mikrofono bat ematen da.

GRABAGAILUAK



Ahots-grabagailu digital hau (Olympus WS 560 M) baliagarria izan daiteke elkarrizketak egiteko, bilerak grabatzeko...

BESTELAKO MATERIALAK



Arbela-paperografoa, mahai tolesgarriak, aulki tolesgarriak.

Norentzat dira aretoak eta materialak?

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko elkarte kide guztiak.

Gainerako gazte elkarte eta mugimenduak.

Zenbat balio du aretoen eta materialen maileguak?

Gure mailegu gehienak doakoak dira, baina fidantza bat eskatzen da. Baldintzak desberdinak dira EGK-ko elkarteentzat eta gainerako elkarteentzat. Prezioen eta fidantzen zerrenda esteka honetan kontsulta dezakezue.

Nola egin eskaera?

Bete estekako eskaera inprimakia.

EGIN KLIK HEMEN



Jarri harremanetan partaidetza teknikariarekin:

partehartze@egk.eus / 688 676 099 eta zuen zalantzak argituko dizkizuegu.

Materiala jaso eta entregatu egin beharko da eskuragarri dagoen bulegoan.

Non aurki daiteke informazio gehiago?

Materialei eta baldintzei buruzko xehetasun guztiak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren webgune nagusian aurkituko dituzue: egk.eus.

Zalantzak badituzue, idatzi: partehartze@egk.eus

PIZTU! BOLETIN DIGITALA ETA BESTE KOMUNIKAZIO BIDE BATZUK

Piztu! boletin digitala bidaltzen dugu bi edo hiru astetik behin. Harpidetzen bazara, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatzen dituen ekimen eta proiektuen berri emango dizugu, baita horien ondorioak jasotzen dituzten txosten edo bideoak ezagutzera emanez.

Gainera, gure elkarteek egindako jardueren, administrazioek gazteentzako antolatutako ekitaldien eta interes orokorreko beste ekimen batzuen informazioa ere biltzen dugu. Zuk ere zure informazioa partekatu nahi baduzu, bidali komunika@egk.eus helbidera eta hurrengo Piztu! boletinean sartuko dugu.

Beste hainbat baliabide ere baditugu egiten dugun guztiaren berri izateko lagungarri izan daitezkeenak:

: gaztekontseilua

: @GazteKontseilua

: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua - Consejo de la Juventud de Euskadi.

GUNE ANITZA

Gune Anitza zigilua EGKren ekimen bat da. Ekimenaren helburua Emakume eta Gizonezko arteko Berdintasunaren eta LGTBI+ kolektiboaren aldeko egitea ateratzea da, eta baita bi ekimen arloen arteko harreman estua eta marko komuna azpimarratzea ere.

Gune Anitzak BI lan ildo ditu. Lehenik, gazteriarentzat gida modura erabilgarria izango den zerrenda bat eratzea bere pentsaerarekin bat datozen lekuak identifikatzeko. Bigarrenik, eragile ezberdinen leku fisikoek zein birtualek aniztasunarekiko konpromezu aktiboa dutela ezagutaraztea.



Nola lortu Gune Anitza zigilua?

Zigilua espazio fisiko zein birtualetan erabili daiteke eta hau lortzeko Manfiestu Anitzarekiko atxikimendua adierazi baino ez da egin behar.

Horretarako, berdintasuna@egk.eus helbide elektronikora helarazi behar dira atxiki nahi den gune fisiko zein birtualaren datuak:

- Izena
- Helbidea edota webgunea: (gune fisiko eta birtuala izatekotan, biak).
- Harremanetarako telefono zenbakia.
- Espazioaren deskribapen laburra: (zer den, zein zerbitzu eskaintzen dituen...).



LANTALDEAK



GAZTE BOLUNTARIOAK

Gazte Boluntarioak Bizkaiko boluntariotzan diharduten hainbat elkartetako gazteek osatutako lantalde bat da. Talde honen helburu nagusia gazte boluntariotzaren papera balioan jarri eta ikusgarri egitea da, ekimenak sustatuz.

Era berean, ezagutzak partekatzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta parte hartzen duten erakundeen arteko sare-lana sendotzeko topagune gisa ere funtzionatzen du, lankidetza sendoago, parte-hartzaileago eta eraginkorrago bat sustatuz.

Emantzipa...
zer?



EMANTZIPA... ZER?

Emantzipa...zer? gazteen emantzipazioaren inguruko ikuspegi berriak lantzeko, eztabaidatzeko eta partekatzeko dinamika multzo bat da, gazteen kezkak eta beharrak erdigunean jarriz.

Lantalde hau urteetan zehar emantzipazioaren inguruan garatutako ekimen eta hausnarketen emaitza da. Helburu nagusia gazteak ahalduentzeko diskurtso eta baliabide berriak sortzea da, ikuspegi ezkorren aurrean indarrak batzea eta bizitza-proiektu autonomoak eraikitzeke aukerak irekitzea.



GAUR8

Gaur8 lan-taldea berdintasunaren eremuan diskurtsoak sortzeko espazioa da. Talde eragilearen helburua feminismoaren inguruko gai ezberdinei buruzko hausnarketen eta eztabaiden bidez diskurtso berriak sortzea da.

Espazio honetan sortzen diren ideiek funtsezko papera jokatzen dute urtean zehar garatuko diren proiektuen diseinuan ere.



ASTIALDI FOROAK

Astialdi Foroa, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan presentzia izanda, astialdiaren arloan lan egiten duten talde eta eragileentzako topagune gisa funtzionatzen duen espazioa da.

Astialdi Foroaren helburua gazteen ahotsa jasotzea eta astialdiarekin lotutako politikan eragitea da, parte hartzen duten taldeen beharrak, iritziak eta proposamenak administrazio publikoei helaraziz.

Horrez gain, sare-lana eta esperientzien trukaketa bultzatzen ditu, taldeentzako elkarlan estuagoa sustatzeko aukera emanez. Espazio honetan astialdiaren balioa, erronkak eta garapenak kolektiboki lantzen dira.